



# ZERO TOLERANTZIA

lan-inguruneke sexu-jazarpenari eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko

## dekalogoia

Jazarpena une jakin bateko ekintza izan daiteke edo behin eta berriro errepikatzen dena, eta hauxe du helburu: modu fisikoan, psikologikoan edo moralean, nahita edo nahi gabe, erabaki batzuk hartzea behartzea, eta biktimaren aurkako eta hura beldurtzeko edo umiliatzeko giroa sortzea.

Jazarpenaren bereizgarrietako bat da biktimaren onespina urratzen duela, edo haren onspina behartua dela, jazarlearen goragoko hierarkia dela-eta. Botere-posizio batetik, aurrez aurre edo modu birtualean eragin daiteke jazarpena, eta portaera horrek mina eragiten du, nahita edo nahi gabe. Zenbaitetan, ordea, sexua-generoa-sexualitatea sistemarekin loturiko baldintza kulturalen ondorioz, biktimak ez dira gai modu esplizituan eta/edo berehala jazarpena bereizteko; areago, aipatutako sistema horrek indarkeria-modu horren errua egozten die biktimei.

### Erakunde honek **zero tolerantzia** adierazten du lan-inguruneke sexu-jazarpenari eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenari dagokienez:

- 1** Konpromisoa du emakumeen berdintasun eraginkorra lortzeko.
- 2** Neurriak hartzen ditu lan-ingurunean sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako inolako bereizkeriarik eta bazterketarik ez sortzeko.
- 3** Ez du onartzen langileen, tokiko bazkideen, herritar onuradunen eta erakundearekin loturaren bat izan dezaketen beste edozein pertsonaren askatasuna, duintasuna, osotasun fisikoa eta psikikoa urra dezakeen inolako portaerarik.
- 4** Lanaren kalitatea eta langileen osasuna ziurtatzeko lan egiten du.
- 5** Langileak sexu-jazarpenaren eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenaren aurka babesteko prebentzio-politikak eta jazarpenaren kontra jarduteko politikak aplikatzen ditu modu arduratsuan.
- 6** Sexu-jazarpenaren eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenaren aurka jarduteko protokolo bat du, pertsona guztiak errespetatuko dituen lan-ingurune seguruak ziurtatzeko.
- 7** Erreferentziazko pertsona edo lantalde bat dauka, oso eskura eta erraz aurkitzeko moduan jakinarazpenak eta salaketak bideratzeko.
- 8** Erakundeetako langileei eta zuzendaritzei edo erabaki-organoei informazioa eta prestakuntza ematen die desiratu gabeko jokabide hauekin lotura duten gaien inguruan.
- 9** Diziplina-neurri zorrotzak ezartzen ditu sexu-jazarpeneko eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoerak frogatzen diren kasuetan.
- 10** Erakundearen barnean kasu horiek salatzeke ereduak jartzen ditu interesa duten pertsonen eskura, eta haien konfidentziasuna, datuen babesa eta ikerketa-prozesuan azkar eta arduraz jokatzeko konpromisoa bermatzen ditu.

Protokolo osoa kontsultatu hemen: [www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI